



ITZULGAIA

LANEKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKATZAILEEN EGINKIZUNAK

LIEGS

LILSO

<p>Lege-arauak, erregelamendu-arauak eta akordio eta hitzarmen kolektiboen edukia betetzen dela zaintzea eta betearaztea, honako esparru hauetan:</p>	BAI (*)	BAI (*)
<p>Lan-harremanen sistema: banakako eta taldeko lan-harremanen arloko arauak; langileen ordezkarien babesari, eskubideei eta bermeei buruzko arauak; tratu- eta aukera-berdintasuna eta laneko diskriminaziorik eza babesteko eta sustatzeko arauak; eta nazioz gaindiko zerbitzuak ematearen esparruan langileak lekualdatzeko arauak.</p>	BAI (*)	EZ
<p>Laneko arriskuen prebentzioa: laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak, eta arlo horretako lan-baldintzetan eragina duten arau juridiko-teknikoak, eta lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak ikertzeko eginkizunak.</p>	EZ	BAI (*)
<p>Gizarte Segurantzaren sistema: aplikazio-eremuko arauak, inskripzioa, afiliazioa, langileen altak eta bajak, kotizazioa eta Gizarte Segurantzaren sistemako kuoten bilketa; prestazioak lortzeari eta baliatzeari buruzko arauak, bai Gizarte Segurantzaren sistemakoak, langabeziagatiko prestazioak eta jarduera uzteagatiko prestazioa barne, bai Gizarte Segurantzaren babes-ekintza borondatez hobetzeko sistemetakoak, baita hitzarmen kolektibo bidez ezarritako borondatezko sistema osagarrien edozein modalitatetakoak ere; Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateei eta Gizarte Segurantzaren kudeaketan lankidetzan aritzeko beste modu batzuei buruzko arauak, bai eta Gizarte Segurantzaren edo gizarte-babeseko beste prestazio edo laguntza batzuen kudeaketan eta funtzionamenduan laguntzen duten erakunde eta enpresen kudeaketa eta funtzionamendua ikuskatzeari buruzkoak ere, alde batera utzi gabe kontabilitatea zuzentzeko eta arlo horretan eskumena duten kontrol-organoei esleitutako kudeaketa ekonomiko-finantzarioa kontrolatzeko eginkizunak; Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak Gizarte Segurantzaren ikuskapena egitea, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 5.2.d) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eta Gizarte Segurantzaren arloko beste ikuskaritza funtzio batzuk betetzea, araudi erregulatzailan ezarritako baldintzetan.</p>	BAI (*)	EZ

ITZULGAIA

LANEKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKATZAILEEN EGINKIZUNAK	LIEGS	LILSO
<p>Enplegua: lanposturatzeari eta enpleguari buruzko arauak; dirulaguntzak, enplegua sustatzeko laguntzak edo enplegua sortzen laguntzeko programetan edo enplegurako lanbide-heziketan ezarritako beste edozein laguntza aplikatzen dela kontrolatzea, horretarako ezarritako araudiaren arabera, alde batera utzi gabe arlo horretan eskumena duten organoek dirulaguntzen finantza-kontrola egin dezaketela; enplegurako lanbide-heziketaren arloko arauak, aurreko zenbakian adierazitakoez bestelakoak, autonomia-erkidegoko araudiak arlo horretako beste ikuskapen-formula batzuk xedatzen dituenen izan ezik, eta aldi baterako laneko enpresen eta enplegu-agentzien arloko arauak.</p>	BAI (*)	EZ
<p>Migrazioak: migrazio-mugimenduei buruzko arauak, eta atzerritarren lanari buruzko arauak.</p>	BAI (*)	EZ
<p>Kooperatibak eta gizarte-ekonomiako beste formula batzuk, bai eta lan-sozietateak eratzeko baldintzak ere, kasuan kasuko legeria autonomikoak bere aplikazio-eremuan kontrakoa xedatzen duenean izan ezik.</p>	EZ	EZ
<p>Bestelako eremuak, baldin eta horiek zaintzeko ardura legez Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzari badagokio.</p>	BAI (*)	BAI (*)
<p>Laguntza teknikoa:</p>	BAI (*)	BAI (*)
<p>Enpresei informazioa eta laguntza teknikoa ematea ikuskatze-lana egiten dutenean, batez ere enpresa txiki eta ertainei, lan-arloko xedapenak hobeto betetzen laguntzeko; langileei eta haien ordezkariari informazioa eta laguntza teknikoa ematea; ikuskaritza-jardueren emaitzak eta ondorioak jakinaraztea, tartean salaketak daudenean, 20.4 artikuluan ezarritakoaren arabera; eta beren eskubideak betetzeko bide administratiboak edo judizialak zein diren azaltzea, ikuskaritza-jarduketetan egiaztatutako enpresa-ez-betetzeek eragin badiete; Gizarte Segurantzako entitate eta erakundeei, eta Estatuko Administrazio Orokorreko eta autonomia-erkidegoetako agintari eskudunei laguntza teknikoa ematea, hala eskatzen dutenean; lan-arloko arauak aplikatzeari edo laguntza eta dirulaguntza publikoak zaindu eta kontrolatzeari buruzko informazioa, laguntza eta lankidetzak ematea administrazio publikoetako beste organo batzuei, eta organo judizial eskudunek eskatzen dizkieten txostenak egitea, ikuskatzeko eginkizunen eta eskumenen eremuan, legezko arau batek hala ezartzen duenean.</p>	BAI (*)	BAI (*)

ITZULGAIA

LANEKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKATZAILEEN EGINKIZUNAK	LIEGS	LILSO
Adiskidetzea, bitartekotza eta arbitrajea:	EZ	EZ
Greba eta bestelako gatazketan adiskidetze- eta bitartekaritza-lanak egitea, alderdiek onartzen dutenean; arbitrajea grebetan eta bestelako lan-gatazketan, alderdiek berariaz hala eskatzen dutenean, bai eta legez ezarritako kasuetan ere.	EZ	EZ

(*) Ikuskaritza funtzio partziala arlo horretan.

LIEGS: Lan Ikuskatzaileordeen Kidegoa - Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Eskala.

LILSO: Lan Ikuskatzaileordeen Kidegoa - Laneko Segurtasun eta Osasuneko Eskala.